







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %7,2 egin zuen behera otsailean, 2015. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %3,4 jaitsi zen; etxekoan eta zerbitzu arloan, berriz, %17,1 eta %6,1 jaitsi ziren, hurrenez hurren. Azken 12 hilabete hauetan kontsumo metatuak %0,2 egin zuen behera, aurreko epealdian izandakoarekin erkatuta; etxeko sektorean %1,5 jaitsi zen eta industrian %0,3; zerbitzuan, ordea, %0,6 igo zen. Industrian, itsas eraikuntza eta konponketan %20,5 egin zuen gora, burdinazkoa ez den metalurgian %7,1, beiragintzan %3,9 eta kautxuaren eratorrietan %3,4. Behera egin zutenak, aldiz, kimika sektorea (%1,5) eta siderurgia (%2,2) izan ziren.

Gas naturala







Otsailean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %13,7 egin zuen behera, 2015eko otsailean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %34,4 jaitsi zen eta gainerako sektoreena %11,2. Azken 12 hilabeteotan izandako kontsumo metatua %5,6 jaitsi da (%20,6 CCTT-n eta %1,6 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Urtarrilean, garraioan erregaien kontsumoa %3,1 jaitsi zen, 2015. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinaren kontsumoak %7,7 egin zuen behera eta A gasolioarenak %2,6. Azken 12 hilabeteotan izandako kontsumo metatua %3 igo zen, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinena %1,9 jaitsi zen eta A gasolioarena, aldiz, %3,6 igo zen.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera






Petrolioaren kontsumoa munduan
 Otsailean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 94,2 milioi kupel izan zen (2015eko otsailean izandakoaren aldean, %0,4 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %0,1 egin zuen behera kontsumoak, 13,8 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %2,9 egin zuen gora, eta 11 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan %2 jaitsi zen, eta 19 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,4 igo da, oro har; zahazki, Txinan %2,8, AEBetan %1,5 eta Europar Batasunean %2,5.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %6,9 egin zuen behera otsailean, 2015eko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Urte mugikorraren kontsumoak %0,3 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen otsailean, %1,1, 2015eko otsailean izandakoaren aldean. Urte mugikorraren kontsumoak %1 egin zuen gora.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %1,6 egin zuen behera urtarrilean, 2015eko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %3,4 igo zen eta gasolioena %1,2. Urte mugikorraren kontsumoak %3,1 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (%0,3 igo zen gasolinena eta %3,7 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %7,3 egin zuen gora urtarrilean; urte mugikorraren kontsumoak %4,3 egin du gora, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 33,2 \$ (29,9 €) izan zen otsailean. Urte mugikorren batez besteko prezioak %45,6 egin zuen behera (%36 eurotan). 2004ko apirilaz geroztik ez da prezio horretan egon.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 27,5 €/MWh izan zen otsailean; duela urtebetekoaren aldean, %35,4 egin zuen behera.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 15,4 €/MWh izan zen urtarrilean, eta %33,1 jaitsi zen, 2015eko hil berean izandakoarekin erkatuta. Otsailean, EGIX-en prezioa 12,5 €/MWh izan zen (2015eko otsailean izandakoarekin alderatuta, %46,1 jaitsi zen). Spot merkatuetan, otsailean Henry Hub-en prezioa 6 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 21,2 €/MWh (2015eko otsailean izandakoaren aldean, %29,5 eta %34 egin zuten behera, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, otsailean, gasolioaren prezioa 0,92 €/l izan zen (urtebetean %19 jaitsi da), eta gasolinarena 1,06 €/l (urtebetean %11,2 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,1 €/t izan zen otsailean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %30,1 egin du behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.